

3) FUNTZESKO ELKARTEAK

Gure enpresak ez ditu produktuak sortuko. Azken finean, gu izango gara abeltzainen eta eroslearen arteko bitartekariak. Abeltzainek eskaintzen dituzten elikadura-generoak gure web orrialdean eskainiko ditugu eta APP-aren edo Web plataformaren bitartez, bezeroek erosteko aukera izango dute.

Aliantzak naturalki sortuko ziren. Aliantzak lan kooperatibo batean oinarritzen dira, non gutxieneko ekarpen eta laguntza batzuekin, suteak edo genero-galera handiak bezalako istripuen kasuan, nekazari eta abeltzain bakoitza sostengatuko duten. Aliantza horiei esker, komunitate txiki bat balitz bezala lan egin ahal izango da, hornitzaile bakar bat ere ez baita egongo prozesuaren edozein unetan, ez ekoizpenean, ez merkataritza-prozesuan bertan.

Abeltzainek euren artean kontaktua izango dute eta kooperatiba bat sortzeko aukera ere. Sutearo enpresak lan egiten duen moduan, hau da, abeltzainen arteko istripuak denon artean ordainduz.

KUJY SL-ko web orriak erlaintz pribatuan, atal bat izango du, non abeltzainek eta nekazariak beren enpresarentzat funtsezkoak diren produktuak erosi ahal izango dituzten. Adibidez, abeltzainek pentsua erosi ahal izango dute animalientzat, eta nekazariak ongaria, substratuak, bitaminak... erosi ahal izango dituzte landareentzat.

Atal honetara gure enpresan hornitzaile gisa alta emanda dauden nekazariak eta abeltzainek baino ezingo dute sartu. Onuragarria izango litzateke haientzat, hasierako hornitzaileak zuzenean hornituko lukeelako, eta, hala, kooperatibak bezalako bitartekariak kendu ahal izango litzukeelako, eta, horrela, gastuak merkatuko liratekeelako.

Basque ``culinary center`` sukalde-eskola arrakastatsuekin merkataritza-akordioa lortu dugunez, gure web orriak 5 ikastaro eskainiko dizkie, erabat doan, urtero, gure bezeroei. Ikastaro horien onuradunak zozketa baten bitartez aukeratuko dira.

Harreman estua izango dugu eskola horrekin, eta elkarrekin lan egingo dugu bizitza osasuntsuaren hezkuntza-kultura eta tokiko gastronomiaren hezkuntza sustatzeko.



FUNTZEZKO ELKARTEAK

